

ENEKO AGIRREZABAL ETA NURIA LUGUEROS GAILENDU DIRA BEHOBIA-DONOSTIAN

Agirrezabal segurarrak 1:01:41eko denbora egin du. Lugerosek, berriz, 1:12:42 behar izan du ibilbidea amaitzeko.

Paulo Ostolaza
2021eko azaroak 14 15:08

Euskal herritar batek irabazi du Behobia-Donostia lasterketa: Eneko Agirrezabalek, Txindoki Atletismo Taldeko korrikalari segurarrak. Ezustekoa emanda irabazi du, gainera, ez baitzen hautagai nagusien zerrendan ageri. Emakumezkoetan faborito nagusia gailendu da, Nuria Lugerosek espainiarra.

Agirrezabalak Gaintxurizketako gainean jo du eraso, eta horri esker hiru lagunera murriztu da liderren multzoa: Agirrezabal zegoen han, Jaume Leiva eta Alejandro Gonzalezekin batera. Jesus Olmosek harrapatu ditu Mirakruzetik behera, eta azkenean lau korrikalari horien artean erabaki da garailea, sprintean.

Agirrezabalek Kursaalera iritsi aurretik jo du eraso, eta aise gailendu da, nahiz eta aitortu duen azken metroak luzeak egin zaizkiola. Helmugan 1:01:41eko denbora egin du. Olmos izan da bigarren, eta González hirugarren.

Lugeros, aurkaririk gabe

Emakumezkoetan, berriz, bakarrik helmugaratu da faborito nagusia: Lugerosek 1:12:42eko denbora egin du, eta ia minutu bateko aldea atera dio bigarren sailkatuari, Elena Silvestreri (1:13:36)

Iazko etenaldiaren ostean, berriz ere egin da lasterketa aurten, eta, eguraldia lagun, 25.000 lagunek baino gehiagok hartu dute parte.

1.- Idatzi lehenaldian irakurritako albistea.

ENEKO AGIRREZABAL ETA NURIA LUGUEROS GAILENDU BEHOBIA-DONOSTIAN

Agirrezabal segurarrak 1:01:41eko denbora egin Lugerosek, berriz, 1:12:42 behar izan ibilbidea amaitzeko.

Paulo Ostolaza
2021eko azaroak 14 15:08

Euskal herritar batek irabazi Behobia-Donostia lasterketa: Eneko Agirrezabalek, Txindoki Atletismo Taldeko korrikalari segurarrak. Ezustekoa emanda irabazi, gainera, ez baitzen hautagai nagusien zerrendan ageri. Emakumezkoetan faborito nagusia gailendu, Nuria Lugueros espainiarra.

Agirrezabalak Gaintxurizketako gainean jo eraso, eta horri esker hiru lagunera murriztu liderren multzoa: Agirrezabal zegoen han, Jaume Leiva eta Alejandro Gonzalezekin batera. Jesus Olmosek harrapatu Mirakruzetik behera, eta azkenean lau korrikalari horien artean erabaki garailea, sprintean.

Agirrezabalek Kursaalera iritsi aurretik jo eraso, eta aise gailendu, nahiz eta aitortu azken metroak luzeak egin Helmugan 1:01:41eko denbora egin Olmos izan bigarren, eta González hirugarren.

Lugueros, aurkaririk gabe

Emakumezkoetan, berriz, bakarrik helmugaratu faborito nagusia: Lugueros 1:12:42eko denbora egin, eta ia minutu bateko aldea atera bigarren sailkatuari, Elena Silvestreri (1:13:36)

lazko etenaldiaren ostean, berriz ere egin lasterketa aurren, eta, eguraldia lagun, 25.000 lagunek baino gehiagok hartu parte.

2. Erantzun ondorengo galderak.

- Nola du izena lasterketa irabazi duen emakumezkoak?
 - Elena Silvestre
 - Nuria Lugueros
 - Alejandra González
- Zenbat denbora behar izan du Nuria Lugueros lasterketa amaitzeko?
 - 1:12:42
 - 1:13:36
 - 1:01:41
- Nola du izena lasterketa irabazi duen gizonezkoak?
 - Jaume Leiva
 - Eneko Agirrezabal
 - Paulo Ostolaza
- Nongoa da Eneko Agirrezabal?
 - Gipuzkoa
 - Segovia
 - Tarragona

- Zein atletismo taldetal dabil Eneko Agirrezabal?
 - Txingudi Atletismo Taldea
 - Segura Atletismo Taldea
 - Txindoki Atletismo Taldea
- Nolako eguraldia egiten zuen?
 - Bero izugarria zegoen
 - Korrika aritzeko giro polita zegoen
 - Lagunak egiteko eguraldi aparta zegoen
- Zenbat parte hartzaile izan dira aurten?
 - lazkoen kopuru bera
 - Hogeita bost mila
 - Hogeita zazpi mila